

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Korporazioko eta talde politikoetako kideen ordainsariak, kalte ordainak eta bilkuretara joateagatiko sariak

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, 2019ko uztailaren 1eko osoko bilkura berezian, honako hau erabaki zuen:

1. Onestea alkatearen lanaldiaren ehuneko 35eko dedikazio partziala, eta urteko 18.891,50 euroko soldata gordina, zeinari ehuneko 0,25eko gehikuntza ezarriko baitzaio 2019ko uztailaren 1etik aurrera.

2. Onestea zinegotzientzako zenbateko hauek:

– Zinegotzi guztiek, alkateak izan ezik, zenbateko hau jasoko dute osoko bilkuretara, informazio batzordearen bilkuretara eta kontratazio mahaien eta taldeen bileretara joateagatik: 50 euro.

– Horrez gain, zinegotzi ordezkariak 40 euroko gehigarria jasoko dute aipatutako bileretako bakoitzera joateagatik, karguari dagozkion erantzukizunak direla eta; urteko gehieneko muga 800 euro izango da.

– Udalak deitutako beste bilera batzuetara joateagatik, udalerrian zein handik kanpo: 25 euro. Zinegotzi ordezkariak ez dute zenbateko hori jasoko.

– Kilometro ordaina: 0,29 euro kilometroko

3. Onestea talde politikoen hornidura: hilean 50 euro izango da osagai finkoa, eta, osagai aldakorra, hilean 25 euro, lortutako zinegotzi bakoitzeko.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Dura, 2019ko uztailaren 4a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE